

Bergaran, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 23an ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkate-Udalburu den aldetik eta Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik, Agurtzane Loidi Larrañaga, adinez nagusia, 15378076T NAN zenbakiduna, Aranzadi ikastolako gerentea, Telesforo Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkartearen ordezkartzan (aurrerantzean Aranzadi ikastola).

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta

ADIERAZI DUTE



1. Bergarako udala dela Seminarioko eraikinen jabea (UNEDaren jabetzako zatia ezik) eta baita eraikin horien bueltan dauden patio eta Ostetako eta Ikerleku kaleekin muga egin duen lursailaren jabea ere.
2. Bergarako udala Ibargarai aldera ematen duen patio handiaren jabe dela Estatuari 2007ko otsailaren 15ean erosi ziolako eta beste denaren jabe berriz, UNED Bergara fundazioarekin 2014ko urriaren 17an egindako permutaren ondorioz.

Permutaren ondorioz Udalak jabetzan eskuratutako ondasunen artean daude UNED Bergara Fundazioak Aranzadi Ikastolari erabileran zeditutako eraikinaz eta Seminarixoa aretoaz gain, honako hauek:

- UNED Bergara Fundazioak erabiltzen lagatako eraikin horren aldamenean dagoen eraikina (Aranzadi ikastolak gimnasio erabilera ematen diona).

Ostetako bidea, Munibe plaza eta UNEDaren eraikinarekin muga egiten duen patio txikiagoa (Aranzadi Ikastolak erabiltzen duena).

- Gimnasio erabilera ematen zaion eraikinaren atzean dagoen lursaila.

3. Aranzadi ikastolak interesa daukala udalaren jabetzakoak diren ondasun hauek hezkuntza jarduerarako erabiltzeko:
 - Ibargarai aldera ematen duen patio handia.
 - UNED Bergara Fundazioak erabiltzen lagatako eraikin horren aldamenean dagoen eraikina (Aranzadi ikastolak gimnasio erabilera ematen diona).
 - Gimnasio erabilera ematen zaion eraikinaren atzean dagoen lursaila.
 - Ostetako bidea, Munibe plaza eta UNEDaren eraikinarekin muga egiten duen patio txikiagoa (Aranzadi Ikastolak erabiltzen duena).
4. Bergarako udalak 2023ko maiatzaren 22an egindako udalbatza bileran erabiltzen uztea erabaki duela.





Bergarako
Udala

Hori dela eta, bi aldeek udalaren jabetzako ondasun horien erabilera arautzeko ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- Bergarako Udalak baimena ematen dio Aranzadi Ikastolari honako ondasunak erabiltzeko hurrengo klausuletan zehazten diren baldintzetan eta Aranzadi Ikastolak onartu egiten du:

- Ibargarai aldera ematen duen patio handia.
- Gimnasioa
- Gimnasio erabilera ematen zaion eraikinaren atzean dagoen lursaila.
- Ostetako bidea, Munibe plaza eta UNEDaren eraikinarekin muga egiten duen patio txikiagoa (Aranzadi Ikastolak erabiltzen duena).

BIGARRENA.- Errege Seminarioko patioaren (Ibargarai aldera ematen duen patio handiaren) erabilera baldintzak:

- 1.- Aranzadi ikastolak ikastetxeko patio bezala erabili ahal izango du inolako tasarik edo bestelakorik ordaindu gabe.
- 2.- Patioa eskola orduetan eta eskola egutegian soilik erabili ahal izango du. Asteburu edo eskolako egutegiz kanpo ekintza bereziren bat bertan egin nahi izanez gero, aurrez idatzizko baimena eskatu beharko dio Udalari. Udalak aldiz, eskola ordu eta egutegitik kanpo edozein jarduera antolatu ahal izango du patioan, baita eskola ordutegi eta egutegian ere, baina honela eginez gero aurrez jakinaraziko dio ikastolari.

- 3.- Argindar gastuak Udalak ordainduko ditu.

- 4.- Udalak jarritako baliabideen (kirol ekipamendua...) konponketak Aranzadi-ren kontura joango dira, baldin eta apurketa eskola orduetan gauzatu badira eta erabilera desegoki baten ondorioz.

- 5.- Ibilgailuekin akzesoa patiora eta ibilgailuen aparkatzeari dagokionean:

5.1.- Eskolako egutegi eta orduetan patiora ibilgailuak sartzea debekatuta dago. Patioa itxita egongo da eta soil-soilik larrialdi zerbitzuek edo udaleko zerbitzuek erabili ahal izango dute, betiere bertan egin beharreko mantenu lanetarako edo eman beharreko zerbitzuetarako premiazkoa denetan (behar den arretarekin, abiadurarekin, seinalizazioarekin... eta ezinbestekoa denean), eta baita udalaren eskuetan geratu den gunera joateko ere.

Ikastolarako beharrezkoak diren karga eta deskarga lanak, ikastola aurrean egokituta dagoen karga/deskarga gunearen bitartez egingo dira.

Edozein salbuespenek (zamalanak, obrak...) espresuki baimena izan beharko dute eta bertatik pasatzean ibilbide motzenez eta arreta handiarekin egingo dute, lan horiek eskatzen duten pasagunea baino ez delarik baimenduko.



San Martin plaza, 4 • 20570 Bergara
Tel.: 943 769 071 Fax: 943 769 072



Bergarako
Udala

5.2.- Eskola-orduetan patioaren ibilera hori baimentzea ikastolari dagokio eta bera izango da hori betetzearen arduraduna eta horren erantzulea. Udala baimen hori eskatetik salbuetsita egongo da.

5.3.- Udalak herrirako antolatutako hainbat ekintzatan edo bere instalazioetan egin beharreko lanengatik edo beste arrazoiengatik patioa erabili edo okupatzeko beharra izango balu, ikastola jakinean jarriko du, betiere patioa erabili ezinean suertatuko balitz.

6.- Patioan hobekuntzak egitekotan ezer egin aurretik jabearen idatzizko oniritzia beharko da. Edozein modutan, egindako obrak patioaren onerako geratuko dira eta jabeak ez du ordainketan parte hartzeko konpromisorik hartzen.

HIRUGARRENA.- Gimnasio erabilera ematen zaion eraikinaren erabilera baldintzak:

1.- Aranzadi ikastolak eraikina ikastetxeko gimnasio bezala erabili ahal izango du inolako tasarik edo bestelakorik ordaindu gabe.

2.- Udalak eskola ordu eta egutegitik kanpo ekintza puntualetarako erabili ahal izango du eraikin hau Aranzadi Ikastolari aurrez jakinarazita.

3.- Aranzadi Ikastola arduratuko da eraikinaren garbiketaz eta mantenu lanez. Eraikin horren argindar, gas, eta ur gastuak ere Aranzadi Ikastolak ordainduko ditu.

4.- Udala erabiltzen ari dela eraikinari eragindako kalteen erantzule izango da Bergarako udala.

5.- Eraikinean hobekuntzak egitekotan jabearen idatzizko oniritzia beharko da. Edozein modutan, egindako obrak eraikinaren onerako geratuko dira eta jabeak ez du ordainketan parte hartzeko konpromisorik hartzen.

6.- Udala, Biark Studio SLP-k idatzitako proiektuari jarraituz eraikin honetako teilatua konpontzera doa. Zentzu horretan adierazten du lanak esleitzeko prozedura abian duela nahiz eta oraindik adjudikazioa egin gabe egon.

Aranzadi ikastola jakitun geratzen da eta konpromisoa hartzen du teilatua konpondutakoan gainontzeko eraikineko atal eta instalazioekin batera teilatuaren mantenua ere egiteko.

LAUGARRENA.- Gimnasio erabilera duen eraikinaren alboko lursailaren erabilera baldintzak:

1.- Aranzadi ikastolak lursaila patio bezala erabili ahal izango du inolako tasarik edo bestelakorik ordaindu gabe.

2.- Aranzadi Ikastola arduratuko da lursailaren garbiketaz eta mantenu lanez.

3.- Lursailean hobekuntzak egitekotan ezer egin aurretik jabearen idatzizko oniritzia beharko da. Edozein modutan, egindako obrak lursailaren onerako geratuko dira eta jabeak ez du ordainketan parte hartzeko konpromisorik hartzen.

4.- Udalak eskola ordu eta egutegitik kanpo ekintza puntualetarako erabili ahal izango du lursail hau Aranzadi Ikastolari aurrez jakinarazita.



Bergarako
Udala

BOSGARRENA.- Patio txikiaren erabilera baldintzak:

- 1.- Aranzadi ikastolak patioa, patio bezala erabili ahal izango du inolako tasarik edo bestelakorik ordaindu gabe
- 2.- Aranzadi Ikastola arduratuko da patioaren garbiketaz eta mantenu lanez.
- 3.- Patioan hobekuntzak egitekotan ezer egin aurretik jabearen idatzizko oniritzia beharko da. Edozein modutan eta jabeak ez du ordainketan parte hartzeko konpromisorik hartzen.
- 4.- Udalak eskola ordu eta egutegitik kanpo ekintza puntaletarako erabili ahal izango du patio hau Aranzadi Ikastolari aurrez jakinarazita.

SEIGARRENA.- Aranzadi ikastolak hobekuntzaren bat egin nahiko balu hitzarmen honen bidez erabiltzen uzten zaizkion guneetan, idatzi bat aurkeztu beharko du Bergarako udaleko Erregistro Orokorrean baimena eskatuz, eta egin nahi duen hobekuntzaren berri eman. Bergarako udalak eskaera aurkeztu eta egoki iritziz gero baimena ematea erabaki du eta erabakia jakinaraziko dio Aranzadi Ikastolari.

Bergarako udala Aranzadi ikastolari erabiltzen uzten zaion guneen jabe denez, hobekuntzak obra baimena eskuratzetik eta zerga eta tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira.

ZAZPIGARRENA.- Erabiltzeko egiten den lagapen honek 2023ko abenduaren 31 arteko iraupena izango du hitzarmen hau sinatzen denetik kontatzen hasita, eta urtez-urte luzatu ahal izango da gehienez ere 10 urte osatu arte, eta Aranzadi Ikastolak espazioak aurreko klausuletan zehaztutako helburuetarako erabiltzen baditu.

Edozein modutan lagapen hau baliogabe gera daiteke epea bukatu aurretik, Udalak erabiltzen lagatako ondasunei beste erabilera bat ematea erabakiz gero. Kasu honetan erabiltzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

ZORTZIGARRENA.- Jabeak edozein momentutan ikuskatu ahal izango ditu erabiltzen lagatako ondasunak, kontserbazio egoera ziurtatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen bitartez erabiltzen lagatako ondasun higiezinaren gaineko zergak Udalaren gain joango dira.

BEDERATZIGARRENA.- Jabeak ez du bere gain hartzen erabiltzen lagatako ondasunetan egon daitezkeen Aranzadiren materialen kalteen, lapurreten edo hondatzeen erantzukizunik.

HAMARGARRENA.- Aranzadi ikastolak gutxienez 300.000 euroko erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du, Udalarekiko erantzukizuna ere bere barne hartzen duena.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzean, gune horien erabileraren inguruan aurretik hartutako erabakiak indargabetuta geratzen dira.



Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuaz goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

Gorka Artola Alberdi
Begarako alkatea



Agurtzane Loidi Larrañaga
Aranzadi ikastolako gerentea



San Martin plaza, 4 • 20570 Bergara
Tel.: 943 769 071 • Faxa: 943 769 177

